

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

4559

EBAZPENA, 2014ko urriaren 14koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, 2014an emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ikerlanak argitaratzeko II. Lehiaketarako deia egiten duena.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen helburu nagusia da emakumeen eta gizonen artean berdintasuna lortzea –benetakoa eta eraginkorra–, Euskal Autonomia Erkidegoko politikagintza, ekonomia, kulturgintza eta gizartearen eremu guztietan. Ildo horretan, Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan Emakunderen ardura da emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko politikak bultzatzea, aholkatzea, planifikatzea eta ebaluatzea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak ezartzen duenaren arabera.

Berdintasunaren aldeko politikak garatuko baditugu, aztertu beharra daukagu batetik, zer genero-harreman eta -rol dauden egun emakumeen eta gizonen artean eremu guztietan dauden ezberdintasunen oinarrian, eta bestetik, nola eragiten duten edo nola eragin dezaketen abian jartzen diren ekimenen garapenean eta inpaktuan. Ikerlan horiek zabaltzea nahitaezkoa da eztabaida publikoa egiteko eta erabaki politikoak hartzeko, are gehiago genero-ikuspegia politika guztietan txertatu nahi badugu.

Horrela, profesionalak eta gizarte-eragileek egindako ikerlanak argitaratzea eta zabaltzea sustatzeko eta bultzatzeko ematen da ebazpen hau, zeinaren bidez arautzen baita 2014an emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ikerlanak argitaratzeko II. Lehiaketarako deialdia. Izan ere, nabarmendu eta ikusarazi egin nahi dira eremu horretan egiten diren ikerlanak, gure gizartearentzat interesgarriak direnak. Azaldutako helburu guztiak aintzat hartuta, publizitate-, lehia- eta objektibotasun-irizpideen arabera arautuko dugu deialdia.

Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Deialdia.

Ebazpen honen xedea da 2014an emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ikerlanak argitaratzeko II. Lehiaketa iragartzea eta arautzea. Lehiaketaren bidez, emakumeen eta gizonen artean berdintasuna lortzen laguntzen duten ikerlanak hautatuko dira, argitalpen digitalaren bidez zabaltzeko, ebazpen honetan onartzen eta jasotzen diren oinarriekin bat etorritz.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Ebazpen honek amaitu egiten du administrazio-bidea. Beraz, ebazpenaren aurka interesdunek berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokete Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete zuzenean, dagokion Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, hil biko epean, ebazpena EHAAan argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

2014ko urriaren 28a, astearta

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Oinarrietan administrazio-prozedurari buruz aurreikusi ez den guztiari Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedaturikoa aplikatuko zaio.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriaren 14a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria,
MIREN IZASKUN LANDAIDA LARIZGOITIA.

2014AN EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNARI BURUZKO IKERLANAK ARGITARATZEKO II. LEHIAKETAREN DEIALDIAREN OINARRIAK

Lehenengoa.– Xedea.

Lehiaketa honen xedea da emakumeen eta gizonen artean berdintasuna lortzen laguntzen duten ikerlanak hautatzea eta, argitalpen digitalaren bidez, argitara ematea.

Bigarrena.– Lehentasunezko gaiak.

Ikerlana argitaratzeko, hauek jotzen dira lehentasunezko gaitzat:

1.– Balioak aldatzea, umeen eta gazteen artean, bereziki.

2.– Emakumeek zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren eremuetan duten kokapena hobetzeko estrategiak: hezkuntzaren, irakaskuntzaren eta enpresaren arlokoak.

3.– Antolakunde sozio-ekonomikoko aldaketak, produkzio-eremuaren eta ugalketa-eremuaren artean oreka handiagoa lortzeko.

4.– Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea.

Hirugarrena.– Helburuak.

Aurkezten diren ikerlanek helburu hauek lortzen lagundu behar dute:

– Gehiago jakitea emakumeen eta gizonen egoeraz, baldintzez eta batzuen eta besteen egoera desberdinaz, eta bizitzaren arlo guztietako genero-harremanez eta ezberdintasunak sortzen dituzten kausez.

– Berdintasun-politiketarako jardunbide egoki izan daitezkeen ikerketen emaitzak aditzera ematea.

Laugarrena.– Hautaketa eta saria.

1.– Sariaren bidez, jendearen aurrean jarri nahi da emakumeen eta gizonen berdintasunari laguntzen dioten gaiak ikertzen dituztenen ekoizpen intelektuala. Ikerlana izan daiteke banaka egindakoa edo elkarlanean egina, unitate akademiko berean edo diziplina arteko unitate akademiko batean, gizarterako interesgarriak diren jakintza-arlo bat baino gehiago lantzen direnez gero. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak editatuko ditu lan irabazleak, eta web-orrialdean argitaratuko ditu.

2.– Gehienez ere, 4 sari emango dira; gainerakoak, ordezeko gisa geratuko dira edo atzera botako dira. Epaimahaiak uste badu aurkeztutako lanak ez direla behar bezain onak, sariak eman gabe gera daitezke.

3.– Deialdi hau lehiaketa-prozeduraz ebatziko da. Ondorio horietarako, prozedura hau joko da lehiaketatzat: saria emateko, erkatuko egingo dira aurkeztutako lanak, eta lehentasun-hurrenkeran jarriko dira, bederatzigarren oinarrian finkatutako esleipen-irizpideak kontuan hartuta. Sariak puntuazio-ordenaren arabera emango dira, aipatu irizpideak aplikatuta.

Bosgarrena.– Hautagaitzak aurkeztea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2.– Eskaerak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen aurkezke (Manuel Iradier kalea, 36, 01005 Gasteiz), edo azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako organoetan (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarena eta Administrazio Prozedura Erkidearena). Eskaera-orri normalizatua aurkeztu behar da, behar bezala beteta.

Nahi izanez gero, bide elektronikoz egin daitezke izapideak –Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 211/2012 Dekretuan arautzen da bide hori–. Halaber, euskadi.net egoitza elektronikoa baliatu daiteke prozedura honetako izapide guztiak eskatu, kontsultatu eta egiteko.

Egoitza elektronikoa eskuragarri daude izapideak egiteko argibideak –aurrez aurre egiteko nahiz bide elektronikoz–, eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak:

https://www.euskadi.net/diru_laguntza/-/2014/ikerlanak/

Eskabidea izapidetzeko eta agiriak aurkezteko bide bat edo bestea erabiltzeak, hau da, aurrez aurrekoa edo elektronikoa erabiltzeak, ez du behartzen aurrerantzean ere prozedurako gainerako izapideak egiteko bide bera erabiltzera, edozein momentutan alda baitaiteke aukeratutako bidea.

Eskaeraren ondoko izapideak, bide elektronikoz, helbide honetan egingo dira:

<https://euskadi.net/nirekudeaketak>

3.– Eskatzaileek euskaraz edo gaztelaniaz aurkez ditzakete eskabidea eta dokumentazioa, nahi duten moduan. Horren haritik, eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da prozedura guztian, Euskararen Erabilera Normalizatzeari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan ezartzen den moduan.

4.– Lehiaketa honetan, pertsona fisiko orok parte har dezake –banaka zein taldean–, baldin eta diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko zehapen administratibo edo penalik gabea bada, eta horretarako gaitasuna kentzen dion lege-debekurik gabea, bereziki kontuan hartuta sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik jarritakoak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legeko azken xedapenetatik seigarrenean xedatuarekin bat etorriz. Horretaz gain, sarirako aurkezten den lanak betekizun hauek bete behar ditu:

a) Argitaratu beharreko ikerlanak Euskal Autonomia Erkidegoan egina izan behar du, azken bi urteetan bukatua.

b) Lehen argitaraldia izan behar da.

c) Argitaratu beharreko ikerlanak hizkera ez-sexistaz idatzita egon behar du.

5.– Hautagaitzarekin batera, dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

I. eranskina: Taldeko kideen adierazpenak, hautagaitza pertsona bat baino gehiagok aurkezten badute.

II. eranskina: Memoria eta argitaratu beharreko material osoa.

III. eranskina: Kide bakoitzaren curriculum vitae.

6.– Hautagaitza talde batek aurkezten badu, horien titular-kide direnek euren arteko bat izendatu beharko dute Administrazioaren aurrean koordinatzaile eta ordezkari izan dadin.

7.– Beharrezkoa dela iritziz gero, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak informazio gehiago eska dezake.

Seigarrena.– Aurkeztutako eskarian egindako akatsak zuzentzea.

Diru-laguntzarako eskabideak behar bezala betetzen ez badira edo bosgarren oinarrian eskatutako agiriren bat falta badute, Emakundek falta den agiria aurkezteko edo antzemandako hutsa zuzentzeko eskatuko dio eskatzaileari, eta, horretarako, hamar eguneko epea emango dio, jakinarazpena egin eta biharamunetik aurrera. Horrez gain, ohartarazten zaio ezen, eskatutakoa egin ezean, eskaera ezetsi egingo dela, ebazpena eman ondoren, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44. artikuluan agindutakoari jarraiki (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

Zazpigarrena.– Lehiaketara aurkeztuko diren ikerlanen ezaugarriak.

1.– Ikerlanen egileak (egileek) testuaren azken bertsioa aurkeztu behar du (dute). Egileek lan sarituak ezingo dituzte aldatu % 5 baino gehiago, sarira aurkeztutako bertsioarekiko.

2.– Lanak originalak izan behar dira, argitaratu gabeak, eta argitaratzeko laguntza ekonomikorik edo saririk inoiz jaso gabeak.

3.– Aurrez aurre aurkeztuz gero, eskabideekin batera, ikerlanaren kopia inprimatu bat aurkeztu behar da, eraztunez josia, eta, bide elektronikoz aurkeztuz gero, eskabideekin batera, lanaren kopia bat formatu digitalean erantsi behar da (Word, Pdf).

Zortzigarrena.– Hautaketa Batzordea.

1.– Hautaketa batzorde bat eratuko da aurkeztutako eskaerak aztertzeko eta ebaluatzeko. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko kide hauek osatuko dute:

Presidentea: Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko idazkari nagusia.

Bokalak:

- Azterlan, Dokumentazio eta Plangintza Arloaren arduraduna.
- Aholkularitza Juridikoko Arloaren arduraduna.
- Programa eta Prestakuntza Arloaren arduraduna.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko teknikari bat.

Idazkaria: Aholkularitza Juridikoko Arloaren arduraduna.

2.– Hautaketa Batzordeak, hautagaitzak ebaluatu ondoren, proposamena egingo dio Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari.

3.– Gaiari adituak diren pertsonen laguntza eta aholkularitza izan dezake Batzordeak.

4.– Hautaketa Batzordearen osaera EHAAn argitaratuko da.

Bederatzigarrena.– Esleitzeko irizpideak.

Erabakia hartzeko, Hautaketa Batzordeak irizpide hauek hartuko ditu kontuan, bakoitzari emandako puntuen arabera:

a) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko ikerlanaren kalitatea, orokorrean. Gehienez ere, 90 puntu emango dira, honela banatuta:

- Lanaren edukia argi aurkeztuta eta egituratuta egotea (15 puntu, gehienez).

- Lanaren kalitatea (20 puntu, gehienez).
- Helburuak zenbateraino bete diren (15 puntu, gehienez).
- Lehentasunezko gaiekin bat etortzea (15 puntu, gehienez).
- Ikerlana hedatzeak zer nolako irismena eta interesa duen (15 puntu, gehienez).
- Landutako gaiak alderdi berritzaileak izatea (10 puntu, gehienez).

b) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskaraz egindako ikerlanak (10 puntu, gehienez).

Hamargarrena.– Ebazpena.

1.– Eskabideak Hautaketa Batzordeak ebaluatuko ditu, esleipen-irizpideei jarraituz; ondoren, proposamena bidaliko dio Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari. Emakundeko zuzendariak ebazpen adierazia emango du, lehiaketa-prozesua amaitzeko eta saritutako lanen berri emateko.

2.– Erabakia hautagaitza aurkeztu duenari jakinaraziko zaio; talde batek aurkeztu badu, berriz, taldeak koordinatzaile izateko izendatu duenari. Emandako diru-laguntzen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ere argitaratuko da, horren berri denek izan dezaten.

3.– Eskabideak ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epea sei hilekoa izango da –gehienez ere–, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

4.– Epe horretan pertsona edo erakunde interesdunari ebazpenik jakinarazten ez bazaio, eskaera ezetsi egin dela esan nahiko du, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

5.– Ebazpenean, saria jaso duten hautagaitzen zerrenda adieraziko da, eta ikerlanak identifikatuko dira, eta, horretaz gainera, ordezkoen zerrenda ere jaso daiteke, onuradunen batek uko egin ez gero, ordezkoengana jo ahal izateko.

Hamaikagarrena.– Jabetza intelektualaren eskubideak.

1.– Ustiapen ekonomikorako aukera ematen duten jabetza intelektualeko eskubideak, saritutako ikerlanen egileei dagozkienak, dohainik lagako zaizkio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari, modu ez-esklusiboan, jabetza intelektualari buruz indarrean den legerian jasotako moduan.

2.– Eskubide horiek erreproduzitzeko, banatzeko, jendaurrean komunikatzeko eta eraldatzeko eskubideak dira, eta, orobat, ekonomikoki ustiatu daitezkeen gainerakoak, hain justu ere, mugarik gabe eta egun diren hizkuntza eta prozedura ororen bitartez, jabetza intelektualari buruzko araudiaren arabera xedaezinak diren baldintzen eta mugen arabera.

Hamabigarrena.– Hautagaitzen betebeharrak.

1.– Sariketa honetan parte hartzeak oinarriak erabat onartzea eskatzen du.

2.– Saritutako ikerlanen egileek euskarri digitalean aurkeztu behar dute ikerlanaren behin betiko testua, berrikusia; hilabeteko epea izango dute, saria eman zaiola jakinarazteko ebazpenetik aurrera. Aurkeztu ezean, lehiaketa honetan parte hartzeari uko egiten diotela esan nahiko du.

3.– Saritu gabe geratzen diren lanak berreskuratu egin ditzakete egileek, lan sarituen berri ematen duen ebazpena argitaratu ostean. Hilabeteko epean jasotzen ez diren lanekiko ardurarik ez du hartuko Administrazioak.

4.– Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak aukera izango du testuaren formatua aldatzeko, gero argitaratu ahal izateko. Bereziki, ikerlanak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen saria jaso duela adierazi beharko da argitalpenean, eta Erakundearen logotipoa agertu beharko da.

Hamahirugarrena.– Datu pertsonalen tratamendua.

Lehiaketa honetan parte hartzen duten lagunen datu pertsonalak Emakunde Emakumearen Euskal Erakundearen fitxategi automatizatu batean sartuko dira, datuak tratatzeko. Fitxategi hori Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakora lotuta dago. Erakundeak sustatutako laguntzak kudeatzeko baino ez da erabiliko fitxategi hau. Interesdunek eskubidea dute datuak ikusteko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko, Legearen arabera. Eskubide horiez baliatzeko, idazki bat bidali beharko diote fitxategiaren arduradunari, hots, Azterlan, Plangintza eta Dokumentazio Arloari (Manuel Iradier kalea, 36, 01005, Gasteiz).

2014ko urriaren 28a, astearta



EMAKUNDE
EMAKUMENEN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Eskabidea

IKERKETA-LANEN ARGITALPENEN LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO HAUTAGAITZA

(*) nahitaezko eremuak

Eskatzailea *

Titularra Ordezkarria

Datu pertsonalak

Titularra

Izena *

Telefonoa

Lehen abizena *

Bigarren abizena *

Sexua * Gizona

Identifikazio-dokumentua *

Zenbakia *

 -
 Emakumea

Ordezkarria

Izena / Erakundearen izena

Telefonoa

Lehen abizena

Bigarren abizena

Sexua Gizona

Identifikazio-dokumentua

Zenbakia

 -
 Emakumea

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala *

Posta bidezkoa

Helbidea *

Zk. _____ Sol. _____ Letra _____

PK *

Udalerrria *

Probintzia *

Herrialdea * ESPAINIA

Elektronikoa

Jakinarazpen, komunikazio eta abisuen hizkuntza *

Euskara Gaztelania

Abisuak jasotzeko datuak

Helbide elektronikoa edo SMS bidezko doako abisuen sistema erabili dezakezu. Sistemak abisatu egingo dizu jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen zaizun bakoitzean.

Helbide elektronikoa edo telefono-zenbaki bat baino gehiago emanaz gero, bereiz itzazu puntu eta koma bidez [;].

Helbide elektronikoa: _____

SMSa: _____

Erantzukizunpeko adierazpenak

Berariazko adierazpena

Aitortzen dut:

- Argitaratu beharreko lana lehenengo argitalpenekoa da.

Bestelako adierazpenak

Honako hau aitortzen dut:

- Eskatzaileak:
 - Ez dauka diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigor penal edo administratiborik.
 - Ez dauka inolako legezko debekurik diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko desgaitzen duenik. (Berariaz adierazi beharko ditu sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak).
 - Indarrean dauden arauetan diru-laguntzen onuraduna izateko ezarritako baldintzak betetzen ditu.
- Benetakoak dira eskabide honetan eta erantsitako dokumentuetan jasotako datuak.

¹ Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak seigarren azken xedapenean dioenaren arabera.

Baimenak

Deialdi hau kudeatzen duen organoari baimena ematen diot dagokion administrazioan honako datu hauek egiaztatzeko, baieztatzeko edo ziurtatzeko, baliabide elektronikoen bidez edo aukeran dauden baliabideen bidez:

Nortasun-datuak

2014ko urriaren 28a, asteartea

Aurretik entregatutako dokumentuak

Dokumentu hauek kontsultatzeko baimena ematen dut:

Dokumentuaren izena	Noiz entregatu zen	Zein erakundetan entregatu zen

Datu pertsonalen babesa² (DPBL)

Eskabidean agertzen diren datuak ezaugarri hauek dituen fitxategi batean sartu dira:

- Izena: Emakunderen Pertsonen Erregistroa
- Non arautua: Urtarrilaren 24ko 3/2012 Dekretua, Gobernuaren Lehendakariaren eta Emakunde Emakumearen Euskal Erakunde organismo autonomoaren datu pertsonalen fitxategiak arautzen dituena.
- Titularra: Emakunde - Instituto Vasco de la Mujer
- Helburua: laguntza emateko espedienteak kudeatzea

Fitxategiaren berri eman zaio aldez aurretik Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, eta datuen segurtasun osoa bermatzeko behar diren segurtasun-neurriak ezarrita dauzka. Datu horiek ez zaizkio beste inori emango, legeak bideratutako kasuetan izan ezik.

DPBLak aitortzen duen bezala, sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideez baliatzeko, jarri harremanetan Emakunde - Instituto Vasco de la Mujer-ekin:

Manuel Iradier kalea, 36
01005 Gasteiz

Laguntzak behar bezala esleitzeko, Administrazio publikoak adierazi diren datuak erkatu ahal izango ditu eta berriazko egiaztapenak egin.

² Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak –DPBL- xedatutakoa betez.

_____ (e)n _____ (e)an
(Tokia) (Data)

(Titularren edo ordezkariaren sinadura)

Eskabidea osatzeko argibideak

Eskatzailea

Zure izenean ari bazara:

- *Eskatzailea* atalean, aukeratu ezazu *Titularra*.
- *Datu pertsonalak* atalean, bete itzazu *titularrari* dagozkion datuak.
- Sina ezazu eskabidea.

Beste pertsona baten ordezkari gisa ari bazara:

- *Eskatzailea* atalean, aukeratu ezazu *Ordezkaria*.
- *Datu pertsonalak* atalean, bete itzazu ordezkatzun pertsonaren datuak *Titularra* atalean, eta zureak *Ordezkaria* atalean.
- Sina ezazu eskabidea.

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala

Jakinarazpen eta komunikazioak jasotzeko, aukera hauek dituzu:

Posta bidezkoa: *Posta bidezkoa* atalean jarri duzun helbidera igorriko dira.

Elektronikoa: [Nire kudeaketak](#) guneko jakinarazpen eta komunikazioen atalera igorriko dira. Han sartzeko, [onartutako ziurtagiri elektronikoa](#) bat izan behar duzu.

Oharra: 10 eguneko epea duzu jakinarazpena sartzeko; bestela, jakinarazpena errefusatutzat joko da, izapidea egintzat emango da eta prozedurak aurrera egingo du.

2014ko urriaren 28a, asteartea



I. ERANSKINA

TALDEKO KIDEEN ADIERAZPENAK

Koordinatzailearen datuak

☐☐ Koordinatzailea

Izena

Lehen abizena

Bigarren abizena

NAN

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

Sexua

Gizona

Emakumea

Telefonoa

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

Udalerria

Código Postal

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

Taldekideen datuak

⌘	1. TALDEKIDEA
Abizenak	_____
Izena	_____ NAN <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> - <input type="text"/>

Erantzukizunpeko adierazpenak

Berariazko adierazpena
Aitortzen dut:

- Argitaratu beharreko lana lehenengo argitalpenekoa da.

Bestelako adierazpenak
Honako hau aitortzen dut:

- Eskatzaileak:
 - Ez dauka diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigor penal edo administratiborik.
 - Ez dauka inolako legezko debekurik diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko desgaitzen duenik. (Berariaz adierazi beharko ditu sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak).
 - Indarrean dauden arauetan diru-laguntzen onuraduna izateko ezarritako baldintzak betetzen ditu.
- Benetakoak dira eskabide honetan eta erantsitako dokumentuetan jasotako datuak.

¹ Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak seigarren azken xedapenean dioenaren arabera.

Adostasunak

Nortasun-datuak

Deialdi hau kudeatzen duen organoari baimena ematen diot administrazio eskudunean datu horiek bide elektronikoan bitartez edo aukeran dauden baliabideen bitartez begiratzeko, egiaztatzeko edo frogatzeko.

_____ (Tokia) (e)n _____ (Data) (e)an

(Sinadura)

2014ko urriaren 28a, astearta



II. ERANSKINA

TXOSTENA ETA ARGITARATU BEHARREKO MATERIAL OSOA

Argitalpenaren datuak

Argitalpenaren izenburua

Ikerketa zer hizkuntzatan aurkeztuko den (X bat jarri hizkuntza adierazteko)

 Euskara Gaztelania

Justifikazioa

Ikerlanaren argitalpen-proiektuaren justifikazioa: garrantzia eta interesa ematen dizkioten alderdiak eta berrikuntzak nabarmendu behar dira bereziki.

Helburuak

Ikerketa-lanaren helburu zehatzen deskribapena eta lehentasunezko gaiekiko egokitzapena.

Argitaratu beharreko material osoa

Argitaratu beharreko lanaren laburpena. Argitaratu beharreko materialaren testu osoa atxiki, eraztunez jositako kopia baten bidez, baldin eta eskabide presentziala egitea hautatu bada (lehenengo argitaraldiko argitalpenek izan behar dute).

_____ (e)n _____ (e)an
(Tokia) (Data)

(Titularraren edo ordezkariaren sinadura)

2014ko urriaren 28a, asteartea



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

III. ERANSKINA

CURRICULUMA

Informazio pertsonala

Lehen Abizena:	_____	Bigarren Abizena:	_____
Izena:	_____		
Helbidea (kalea/plaza):	_____	Zk:	_____
		Solai.:	_____
Udalerrria:	_____	P.K.:	<input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/>
Telefonoa:	<input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/>	Mugikorra:	<input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/>
Faxa:	<input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/>		
E-mail:	_____		
Nazionalitatea:	_____	Jaioteguna:	_____
Sexua:	<input type="radio"/> Gizonezkoa <input type="radio"/> Emakumezkoa		

Lan-esperientzia

Deskribatu, banan-banan, lanbide garrantzitsu bakoitza, berrietik hasita.

Hasiera-data:	_____	Amaiera-data:	_____
Lanbidea edo betetako kargua:	_____		
Eginkizunak eta ardura nagusienak:	<div style="border: 1px solid black; height: 50px; width: 100%;"></div>		
Enpresa edo enplegu-emalearen izena:	_____		
Enpresa edo enplegu-emalearen helbidea:	_____		
Enpresa edo sektore-mota:	_____		

2014ko urriaren 28a, asteartea

Hezkuntza eta prestakuntza

Deskribatu, banan-banan, lanbide garrantzitsu bakoitza, berrietik hasita.

Hasiera-data: _____ **Amaiera-data:** _____

Lortutako titulua: _____

Ikasgai nagusienak edo ikasitako gaitasun profesionalak:

Ikastetxearen izena eta mota: _____

Nazioarteko sailkapenarekin edo sailpen nazionalarekin bat egiten duen maila: _____

Gaitasunak eta trebetasun pertsonalak**Hizkuntzak**

Zure ama-hizkuntza adierazi (ama-hizkuntza bat baino gehiago baduzu, bakoitza adierazi):

Ama-hizkuntza: _____

Beste hizkuntza bat(zuk) - Autoebaluzioa:

Hizkuntza	Ulermena		Ahozkoa		Idazkera
	Entzunezko ulermena	Irakurriaren ulermena	Ahozko interakzioa	Ahozko gaitasuna	

2014ko urriaren 28a, asteartea

Gaitasunak eta jendetasuna

Trebetasun horiek deskribatu eta adierazi zein testuingurutan garatu diren.

Gaitasunak eta antolatzeko trebetasuna

Trebetasun horiek deskribatu eta adierazi zein testuingurutan garatu diren.

Gaitasunak eta trebetasun teknikoak

Trebetasun horiek deskribatu eta adierazi zein testuingurutan garatu diren.

Gaitasunak eta trebetasun informatikoak

Trebetasun horiek deskribatu eta adierazi zein testuingurutan garatu diren.

Gaitasunak eta trebetasun artistikoak

Trebetasun horiek deskribatu eta adierazi zein testuingurutan garatu diren.

Beste gaitasun eta trebetasun batzuk

Trebetasun horiek deskribatu eta adierazi zein testuingurutan garatu diren.

Gida-baimena:

- | | | | | | |
|-----------------------------|--------------------------------|---------------------------------|---------------------------------|----------------------------|------------------------------|
| <input type="checkbox"/> AM | <input type="checkbox"/> B | <input type="checkbox"/> C1 | <input type="checkbox"/> D1 | <input type="checkbox"/> E | <input type="checkbox"/> BTP |
| <input type="checkbox"/> A1 | <input type="checkbox"/> B + E | <input type="checkbox"/> C1 + E | <input type="checkbox"/> D1 + E | | |
| <input type="checkbox"/> A2 | | <input type="checkbox"/> C | <input type="checkbox"/> D | | |
| <input type="checkbox"/> A | | <input type="checkbox"/> C + E | <input type="checkbox"/> D + E | | |

Ibilbidea

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean duten ibilbidea, esperientzia eta prestakuntza, eta, bereziki, eskatutako bekaren ikerketa-gaiari buruz dutena:

_____ (e)n _____ (e)an

(Sinadura)

DOKUMENTUARI BURUZKO ARGIBIDEAK

1 INFORMAZIO PERTSONALA

Curriculuma nola betetzeko informazioa jasotzeko, helbide honetara jo:

<http://europass.cedefop.europa.eu/europass/home/vernav/Europass+Documents/Europass+CV.csp>:

2 GAITASUNAK ETA TREBETASUN PERTSONALAK

Autoebaluazio-taula hizkuntzarako erreferentzia den Europako Esparru Komunaren sei mailako eskalan oinarritzen da (Europako Kontseiluak egina).

Taulak honako hiru maila hauek ditu:

- Oinarrizko erabiltzailea (A1 eta A2 mailak);
- Erabiltzaile autonomoa (B1 eta B2 mailak);
- Erabiltzaile trebea (C1 eta C2 mailak);

Atzerriko hizkuntzan zure maila autoebalutzeko, hurrengo deskribapenak irakurri eta zure curriculumean agertzen diren laukitxoetan (ahozko ulermena, idatzizko ulermena, ahozko interakzioa, ahozko adierazpena, idazmena) maila egokia adierazi (adibidez Bikain - C2).

Entzunezko ulermena	A1	Gai naiz niri, nire familiari eta inguruko gauzei buruzko hitz arruntenak eta oso oinarrizko esapideak ulertzeko, jendeak astiro eta argi hitz egiten duenean.
	A2	Gai naiz lexiko eta esapide erabilienak ulertzeko zuzenean dagozkidan arloetan (adib. oinarrizko informazioa nitaz, nire familiaz, erosketez, inguruaz, lanaz).
	B1	Gai naiz ideia nagusiak ulertzeko, hizketa argi eta estandarra denean, eta gaiak ezagunak direnean: lana, eskola, aisialdia etab. Ulertzen dut gaur egungo gaiak edo interes pertsonaleko edo profesionaleko gaiak diharduten telebista-edo irrati-saioetako ideia nagusiak, baldin eta poliki eta argi hitz egiten badute.
	B2	Gai naiz konferentzia eta hitzaldi aski luzeak ulertzeko. Era berean, argudio konplexuak ere ulertzen ditut, baldin eta gaia gutxi-asko ezaguna badut. Ulertzen ditut telebistako albistegiak eta eguneko gorabeherei buruzko saio gehienak.
	C1	Gai naiz berbaldi luze bat ulertzeko, oso garbi egituratuta ez badago ere edo erlazioak oso esplizituak izan ez arren. Telebista- programak eta filmak neke handirik gabe ulertzen ditut.
	C2	Ez dut inolako arazorik edozein hizketaldi ulertzeko, ez zuzenekoa, ezta komunikabideetako ere, baita jatorrizko hitzunen abiaduran hitz egiten dutenean ere, baldin eta bere hizkera-moduarekin ohitzeko denbora badut.
Irakurriaren ulermena	A1	Gai naiz hitz eta izen oso ezagunak ulertzeko, baita esaldi oso sinpleak ere. Adibidez, iragarkietan, posterretan edo katalogoetan.
	A2	Gai naiz testu labur eta oso sinpleak irakurtzeko. Gai naiz informazio jakin eta aurreikus daitekeena eguneroko dokumentu arruntetan bilatzeko, esate baterako iragarkietan, prospektuetan, menuetan eta ordutegietan. Gai naiz gutun pertsonal labur eta sinpleak ulertzeko.
	B1	Gai naiz hizkera arruntean idatzitako testuak edo nire lanari buruzkoak ulertzeko. Gai naiz gertaeren deskribapena edota sentimenduen eta desioen azalpena ulertzeko gutun pertsonaletan.
	B2	Gai naiz gaur eguneko gaiei buruzko artikulak eta txostenak irakurtzeko, egileak jarrera jakin bat edota ikuspuntu berezia erakusten duenean. Gai naiz gaur eguneko hitz lauako literatura-testuak irakurtzeko.
	C1	Gai naiz gertakarietan oinarritutako testuak edo literatura-testu luze eta konplexuak ulertzeko eta estiloak bereizteko.
	C2	Gai naiz edozein testu-mota irakurtzeko, baita abstraktuak eta egituraz edo hizkuntzaz zailak direnak ere. Adibidez, eskuliburuak, artikulak espezializatuak edo literatura-lanak.

2014ko urriaren 28a, astearta

Ahozko interakzioa	A1	Gai naiz modu sinplean komunikatzeko, baina solaskidearen menpe nago, hark prest egon behar baitu nik esandakoa astiro errepikatzen, birformulatzeko edo nahi dudana esaten laguntzeko. Gai naiz berehalako premiei edo oso gai arruntei buruzko galdera errazak egin eta erantzuteko.
	A2	Gai naiz komunikatzeko jarduera eta arlo ezagunetan, informazio-trukea zuzena eta sinplea denean. Elkarrizketa osoa jarraitzeko adina ulertzen ez badut ere, gai naiz informazio-truke labur-laburrak egiteko.
	B1	Gai naiz hizkuntza mintzatzen den herrialdera egindako bidaia batean gerta litezkeen egoera gehienei aurre egiteko. Gai naiz, prestatu gabe ere elkarrizketan parte hartzeko, gaiak ezagunak direnean, interes pertsonalekoak edo bizimodu arruntekoak (familia, aisialdia, lana, bidaiak, albisteak,...).
	B2	Gai naiz jatorrizko hiztun batekin normal mintzatzeko, berezotasun eta erraztasun nahikoarekin. Gai naiz elkarrizketan era aktiboan parte hartzeko eta nire iritziak azaldu eta defenditzeko egoera ezagunetan.
	C1	Gai naiz natural eta jarioz hitz egiteko, esapideen bila nabarmen luzatu gabe. Badakit hizkuntza gizarteedo lanbide-erlazioetan malgu eta eraginkor erabiltzen.
	C2	Gai naiz ahalegin handirik gabe, edozein elkarrizketa edo eztabaidatan parte hartzeko. Esamoldeak eta lagunarteko hizkera ondo erabiltzen ditut. Ideiak jarioz eta ñabardura guztiekin adierazten ditut. Zailtasunen bat badut gai naiz atzera egiteko eta hutsunea trebezia konpontzeko solaskidea ia konturatu gabe.
Mintzamena	A1	Gai naiz esaldi eta esapide sinpleak erabiliz nire bizilekua eta jende ezaguna deskribatzeko.
	A2	Gai naiz esaldiak eta esapideak sorta batean erabiltzeko honelakoak era sinplean deskribatuz: nire edo beste norbaiten familia, nire bizimodua, ikasketak, oraingo edo lehengo lana.
	B1	Gai naiz esaldiak era sinplean josteko, honelakoak deskribatzearen: esperientziak, gertaerak, ametsak, itxaropenak eta helburuak.
	B2	Badakit zehatz eta argi hitz egiten nire intereseko gai askori buruz.
	C1	Gai naiz deskribapen argiak eta xeheak egiteko gai konplexuei buruz, horiekin lotutako gaiak integratuz, zenbait puntu garatuz eta berbaldia egoki amaituz.
	C2	Gai naiz deskribapen edo argudioen azalpen argiak jarioz egiteko eta testuinguruari egokitutako estiloan, horretarako egitura logiko eta eraginkorrak erabiliz, entzuleari ideia nagusiei erreparatzen eta haiek gogorarazten laguntzeko.
Idazmena	A1	Gai naiz postal laburrak eta errazak idazteko, esaterako zioriontzekoak. Gai naiz nire datu pertsonalak galdetegi batean idazteko. Adibidez, izena, nazionalitatea edo helbidea hoteleko erregistro-orrian.
	A2	Gai naiz berehalako premiei buruzko ohar eta mezu sinpleak idazteko. Gai naiz gutun pertsonal oso sinpleak idazteko, adibidez eskerrak ematekoak.
	B1	Gai naiz testu sinpleak eta koherenteak idazteko, gai ezagunen edo interes pertsonalekoen gainean. Gai naiz gutun pertsonalak idazteko, nire esperientziak eta irudipenak adieraziz.
	B2	Gai naiz nire intereseko gai askoren inguruan, testu argiak eta xeheak idazteko. Gai naiz idazlan bat edo txosten bat egiteko informazio jakin bat adieraziz edota iritzi baten aldeko edo kontrako arrazoiak emanez. Gai naiz gutunak idazteko, gertaerei eta esperientziei ematen dieran garrantzia nabarmenduz.
	C1	Gai naiz testu argi eta ongi egituratuak osatzeko, neure ikuspuntua luze-zabal adieraziz. Badakit gai konplexuak adierazten gutun, idazlan edo txostenetan, garrantzizkoen iruditzen zaizkidan puntuak azpimarratuz. Gai naiz hartzaileari egokitutako estiloa erabiltzeko.
	C2	Gai naiz testu argiak jarioz idazteko, estilo egokian. Gai naiz gutun, txosten edo artikuluko konplexuak idazteko, argudioak egitura logiko eta eraginkorraren bidez antolatuz, irakurleak puntu nagusiak ulertu eta gogoan har ditzan. Gai naiz idazlan profesionalak edo literatura-idatziz laburtzeko eta kritikatzeko.